

## ZAIN DAUDEN GURASOAK<sup>1</sup>

Lehen alabaren jaiotzaren zain dauden gurasoen hausnarketa da. Dagoeneko badakite neskatoa izango dena.

*Seme-alaba izango genuela jakin aurretik ere, bagenuen itxaropena, egunen batean gure bizitzetako egitasmorik garrantzitsuena gauzatzeko aukera izango genuela-eta. Ondoren, itxaropenari delako egitasmorik horri gauzatzeko nahia eta aukera gehitu zitzaizkion eta, azkenik, bizi berria bidean zela jakin izan genuen. Hilabete batzuen buruan, kide berria izango genuen familian.*

*Hazten hasten den bizia zelulen multzo txiki-txiki bat baizik ez denetik aurrera, makina bat galdera sortzen da eta makina bat sentimendu bizi, bakarka zein bikotekidearekin batera.*

### POZTASUNA

*Horrelako berria jasotzeak eragiten duen poztasuna paregabea da. Berri ona jasotzen denean, besteei jakitera emateko gogoia pizten da. Eta ospatu egiten da zoriondu eta apurka-apurka, dena normaltasunera itzultzen da eta poztasuna, azkenean, poztasunaren eragina gutxitu egiten da, eguneroko kontuen artean, beti hain onak izaten ez diren gauzen artean, estaliz...*

*Kasu honetan, antzeko zerbait gertatzen da. Hasieran, ezkutatu ezin daitekeen berria da: aita eta ama izango gara, jakin dezatela denek, ezagun denek izan dezatela honen berri! Baina kasu honetan, poztasuna ez da gutxitzen, gero eta gehiago barneratzen da, gero eta sakonago, biziago bihurtzen da.*

### ESKER ONA

*Benetan, miraria gertatu dela sentitzen dugu. Bilatutako eta nahitako miraria, baina, azken batean, miraria; gainera, guzti horretan Jainkoak esku-hartu duela konturatzen gara, bere begirada jarri duela gutariko bakoitzarekin egin izan duen bezala, gure egitasmok, egitarauak, nahiaz... ikuskatuz, guk bere esku utzi ala ez...*

### ERANTZUKIZUNA

*Sentimendu berria azaltzen da laster: erantzukizuna. Nola konponduko gara gainerako betebeharrekin, hau da, lanarekin, hipotekarekin...? Nola uztartuko dugu guztia? Nola gobernatuko dugu gure alabaren hezkuntza? Gauak lorik egin gabe igarotzeko gauza izango ote gara? Zer egingo dugu gaixotzen denean? Eta arazoren bat badu?*

*Gure alaba "haizearen kontra" hezteko gauza izango ote gara? Koherentziaz jokatzeko gai izango ote gara? Sendotasun nahiko izango ote dugu? Nola ikusaraziko ote diogu*

---

<sup>1</sup> Katekesirako Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Ordezkaritza eta Idazkaritzek eraturako 0-6 urte bitarteko enlirio esnatzea. Besoetan liburuko 4-6 orrialdeetatik hartuta eta berreginda.

*Jainkoa hasieratik berekin dela? Zer egingo ote dugu neskato lasai, eta zoriontsua, pertsona jatorra izan dadin bizitzan? Nola jokatu ote zuten gurasoek gurekin?*

#### ILUSIOA ERAIKITZEKE DAGOEN ETORKIZUNAREN AURREAN

*Hilabete hauek prestaketa fisiko eta psikologikoa dira etorkizunari begira. Hilabete hauetan, etengabeak dira aldaketak, gorabeherak, erantzunik gabeko galderak... Baina ilusioa nagusitzen da, geuk sortu dugun eta gure eskutik hazi eta garatu egingo den pertsona jaiotzeaz delako.*

#### AITATASUN-AMATASUNAK DAKARTZAN UKO EGITEEZ JABETU ETA GURE SEME-ALABAREKIKO ERANTZUKIZUNETIK ONARTU

*Datorren aitatasun-amatasunak hainbat sakrifizio eta uko egite eskatuko digu eta horiek naturaltasunez hartu beharra dago. Bakarrik bikote izatetik bikote eta guraso izatera igarotzean, gure bizitza zertan aldatuko den ikustea komeni da. Eta nahiz eta oso errealistak izan, errealitateak imajinatu dugun hori aise gaindituko duela jakinda.*

#### ALDI BERRIARI NOLA AURRE EGIN PROGRAMATU

*Guraso bezala, gure seme-alabaren hezkuntzaren oinarrien inguruan hitz egin behar dugu. Hainbat gauzaren inguruan jardungo dugu elkarrizketan: gure artean erantzukizunak nola banatu; gainerako senideek izango duten egitekoa; gure bikote-harremana hazten jarraitzeko bideak, haurraren etorrerak "arreta-gunea" aldatzea dakar-eta.*

#### **HAUSNARTZEKO ETA ELKARRIZKETAN JARDUTEKO:**

1. Bat zatozte beraien lehen alabaren zain dauden guraso hauen azalpenekin? Zertan bereziki? Zuok bizi izandako esperientziatik, zerbait esango zeniekete?
2. Nola bizi izan zenuten haurdunaldia? Zer nabarmenduko zenukete itxaronaldi horretatik?
3. Eta zuon seme-alabaren etorrera? Nola bizi (izan) duzue esperientzia hori, bakarka eta bikote bezala? Saiatu emozioei, sentimenduei, barrualdean gertatzen denari... izena jartzen.
4. Zein kezka edo ardura agertzen da aldi berri honetan? Bikotekidearekin konpartitzen duzue guzti hori?
5. Eta zein poztasun eta ilusio?
6. Nola aldatu du esperientzia honek zure bizitza? Zertan zehazten da? Aldatu zara pertsona bezala? Eta bikote bezala?
7. Aparteko esanahirik izan du zuon fede esperientziarako, zuon Jainkoarekiko hartu-emanerako, guraso izatearen esperientziak? Eta alderantziz... Jainkoarekiko hartu-emanak izan ote du eraginik amatasun-aitatasunaren esperientziaren bizipenean?